

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide-fisikoak: Proiektu honekin hasteko, garaje bat beharko dugu, bertan gure produktua sortuko dugu. Leku bat behar dugu lehengaiak gordetzeko, beste leku bat produktua sortuko dugun makinak gordetzeko eta beste leku bat produktu bukatuak gordetzeko. Bestalde bulego bat beharko dugu, hau garaje barruan ere egon daiteke. Bertan ordenagailua izango dugu web orria eguneratzeko, finantza kontuak aurrera eramateko eta korreo elektronikoa bidez hornitzaile edo bezeroekin hitz egiteko. Telefono bat beharko dugu bezeroekin edo hornitzaileekin hitz egiteko ere edo edozein pertsonak duen dudak argitzeko.

Baliabide intelektuala: Gure proiektua aurrera ateratzeko pertsona gutxi gara, baina baliabide intelektualak baditugu. Oierrek izugarritzko sormena du, honek laguntza asko eman diezaioke taldeari, batez ere hurrengo produktua pentsatzen. Iñigok, web guneak diseinatzeko eta informatikako ezagutzak ditu, marketing-ean laguntza asko eman dezake. Eta Nikolas oso trebea da negoziatzen eta administrazio kontuetan, bezeroak eskuratzeko eta dirua ongi administratzeko aproposa.

Finantza baliabideak: Hasiera batean, ez dugu dirua edukiko aurreztuta, orduan pixkanaka aurrezten joan beharko dugu, etorkizuneko inbertsioak egiteko.